

æk
22.korrika

Guraso Taldeak B1



Unitate honen helburua da euskara ikasten ari diren gurasoei **PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS**en eta **ENE KANTAK**en berri ematea, eta umeekin euskaraz aritzeko zenbait kanta ikastea. Prest?

æk

PROZEDURA:**1. jarduera: Ezagutzen dituzu?****Pirritx, Porrotx eta Marimotots**

- ▶ Pirritx, Porrotx eta Marimotots ezagutzen ote dituzten galdetuko dugu (4. or.); argazkiari begira, nor den nor ba ote dakiten...
- ▶ KORRIKAREN omenduak direla azalduko dugu, eta testua irakurriko dute (4. or.): ulertzen ez dutena azpimarratzeko esango diegu.
- ▶ Talde handian, zalantzak argituko ditugu, eta albistea komentatuko dugu.
- ▶ Katxiporreta.eus gunera sartu, eta ikasleekin, pantaila handian, zer eskaintzen duten eta zer lan egiten ari diren ikusiko dugu: zein ikuskizunekin dabilzan, aldizkaria ezagutzera eman...
- ▶ Haien zenbait ikuskizun *Youtuben* ikusgai¹ daudela ere azalduko dugu.

Omenaldia

- ▶ Omenaldiaren aurrekoak erakusten dituen ikus-entzunekoa² ikusiko dugu, eta zer ulertu duten ikusteko, pantaila handirako aurkezpena³ erabiliko dugu (aurkezpeneko 2.-7. or.): irudiak ikusi ahala galderak egingo ditugu, eta ikasleek zer ulertu duten esango dute beren hitzetan (Aizu! 463. aleko erreportajea ere eskura duzue, ikus-entzunezkoarekin lotuta, ikus 13. or.).
- ▶ Lehenengo jarduera egingo dute (paperean 5. or.): azalpen-testuak osatu, eta irudiekin lotuko dituzte.
- ▶ Omenaldiaren berri ematen duten titularrak eta 11tb-ko albistea⁴ ikusiko ditugu, istorioaren amaiera gisa (aurkezpeneko 8.-10. or.), eta honako galderari erantzungo diote (aurkezpeneko 11.-12. or.): Zer ikusi dugu? (paperean 5. or.)
- ▶ Amaitzeko, solasaldia egingo dugu (aurkezpeneko 13. or.).

ERANTZUN ZUZENAK:

OMENALDIAREN AURREKOAK 1. deitu **zuen**; egingo **zituela** / 2. jaso **zuen**; kontatu **zient**; garbitzen ari **zen** / 3. deitu **zion**; nahi **zuelako**; erantzun **zuen**; libre **zutela** / 4. egin **zieten** / 5. atera **zuten**

Azalpenak eta irudiak: 1c; 2d; 3a; 4e; 5b

OMENALDIA Zer ikusi dugu? a, b, d, e, f, h, i, l (trapezistarik ez da ikusten, baina egon ziren)

Ene kantak

- ▶ *Ene Kantak* proiektua ezagutzen ote duten galdetuko dugu, eta testua irakurriko dute (6. or.).
- ▶ Haien webgunera jo, eta ikasleekin, pantaila handian, zer eskaintzen duten eta zer lan egiten ari diren ikusiko dugu: zein ikuskizunekin dabilzan...
- ▶ ETB3n egiten duten saioaren berri ere emango dugu (*Nahieran*⁵ dago ikusgai).

Sakontzen

- ▶ Bakarka, beste eskola-egun batean edota etxean, hainbat edukiri erreparatzeko ariketak egingo dituzte (7. or.).
- ▶ Talde handian zuzenduko ditugu.

ERANTZUN ZUZENAK: 1b; 2c; 3b; 4a; 5b; 6b; 7c; 8b; 9a; 10c; 11b; 12a

¹ <https://www.youtube.com/user/katxiporretaTB> (Katxiporreta kanala)

² Omenaldiaren aurrekoak: <https://www.youtube.com/watch?v=O4o4dO9t0ig&t=10s>

³ *Omenaldiaren aurrekoak.pdf* edo *Omenaldiaren aurrekoak.odp* (formatu editagarria)

⁴ Omenaldia 11TBn (albistea, 1'47 min): <https://www.hamaika.eus/euskal-herria-berriak/gizartea/pirritx-porrotx-eta-marimototsen-ibilbidea-omendu-dute-aek-k-eta-korrikak-gure-zirkuan.html>

⁵ *Nahieran* gunean (<https://www.eitb.tv/eu/>), bilatzailean *Ene kantak* idatziz gero, saio guztiak agertuko dira.

Zeure esperientzia

- ▶ Haien esperientzien berri jasoko dugu (8. or.); galdetegia ozen irakurriko dugu, eta hiztegiari dagozkion zalantzak argituko ditugu.
- ▶ Hirunaka lehenik, eta talde handian gero, beren esperientziak azalduko dituzte.
- ▶ Amaitzeko, umeein euskarazko ikuskizunetara joatera animatuko ditugu, eta herrian holakoak daudenean, eskolan horien berri emango dugu.

2. jarduera: Kantatuko dugu?

Zenbait kanta aukeratu, eta buruz ikasteko **proposamena egingo diegu**; bat, KORRIKAREN kanta bat; bi, Pirritx, Porrotx eta Marimototsena; hiru, *Ene kantak*-ena. Horrela, bi proiektuak ezagutuko dituzte. Gure proposamena:

Tipi-Tapa, Korrika! (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) 9. or.

https://www.youtube.com/watch?v=gFcQ_zXnWvk

Maite zaitut (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) 10. or.

https://www.youtube.com/watch?v=BNXmvq_Iz1E

Astonauta (Ene Kantak, Astonautak) 11. or.

https://www.youtube.com/watch?v=J__Ua9T74WY

- ▶ **Pirritx, Porrotx eta Marimotots**ek bi Korrika KANTA dituzte. Ikuskizun¹ oso bat ere eskaini zioten KORRIKARI (kanta polit pila bat dituzte ikasleekin landu ahal direnak. Ikusi haien youtubeko kanala²). Oro har, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen kanten letrak zailagoak dira *Ene kantak*-enak baino.
- ▶ **Ene kantak**-ek kanta pila bat ditu, youtuben publikatuak, karaokea egiteko moduan (ikusi haien kanala³; kanta guztien letrak⁴ ere bertan dituzue). A1 mailarako oso egokiak eta politikak dira. Batez ere, ume txikiekin kantatzeko dira egokiak. Beraz, ikasleek nahi izanez gero, hilean behin, kanta bat ikasteko helburua gehi diezaiokegu ikastaroari. Horrez gain, A2 eta B1 mailarako egokiak diren ipuin musikatuak ere badituzte, esaterako:

Hiru txerrikumeak (Oneka) <https://www.youtube.com/watch?v=eC7goeDQ4rg>

Txanogorritxo. Ipuin modernoa (Satorjator) <https://www.youtube.com/watch?v=6ydBr7V1DFA>

- ▶ Kanta aukeratutakoan, behin entzungo dugu letrak banatu baino lehen, inpresio orokorra har dezaten, eta ea gustatu zaien galdetuko dugu.
- ▶ Hipotesiak egiten utziko diegu: zuen ustez, zer esaten du letrak? Ezer ulertu duzue? Zer?
- ▶ Hitzak banatu, eta nabarmendutako hitzak irudiekin lotu beharko dituzte (9.- 11. or.).
- ▶ Zuzentzeko, talde handian, hitzek zer adierazten duten azaltzen joango gara, gure hitzekin, eta irudietako hitzak zuzen jarri ote dituzten ikusiko dugu (ikusi 12. or.).
- ▶ Amaitzeko, letrari begira (bai pantailan —bideoetako karaokeetan—, bai paperean), kanta abestuko dugu eskolan.
- ▶ Erronka botako dugu: ezetz astebetean buruz ikasi! Erronka onartzen badute, astebete emango diegu, eskolaz kanpo, buruz ikas dezaten, eta astea pasatutakoan, euskaltegian, berriro kantatuko dugu. Ea nork lortzen duen erronka gainditzea!
- ▶ Etxean, umeein kantatzera animatuko ditugu.

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=Zdk-j3AJiUk> (KORRIKA ikuskizuna)

² <https://www.youtube.com/user/katxiporretaTB> (Katxiporreta kanala)

³ <https://www.youtube.com/channel/UC8CLiqqVcs5gcAQR72Q3XFg> (*Ene kantak* kanala)

⁴ <https://enekantak.org/letrak/> (Ene kantak. Letrak)

PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

Ezagutzen dituzu? Nor da nor?



Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez) pailazo-hirukotea da. 1987ko abenduaren 24an sortu zen, Lasarte-Orian, eta gaur egun Euskal Herriko pailazorik ezagunenak eta arrakastatsuenak dira.

2017an Korrikari eskaini zioten urteko ikuskizuna, eta orain Korrikak omendu egin ditu.

Zergatik omendu ditu KORRIKAK Pirritx, Porrotx eta Marimotots? 34 urteko ibilbidea egin dutelako euskal munduan eta euskaraz. 1987an EKIN zioten, haiei esker askok EKIN diogu, eta datozen belaunaldiek ere EKINGo diote. Haiek transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta behetik gora (ume-guraso) landu dute; haiek, beren HITZEKIN, euskarari EKIN zioten, eta eutsi egin diote.



Euskara ez zutenean, euskara ikasteari edota hobetzeari EKIN zioten, eta, orduz geroztik, euskaraz aritu dira 34 urte hauetan. Haiei esker, guraso asko euskaldundu dira, eta ikuskizun eta kanten bidez, bizipoza eta euskara zabaldu dituzte. Gehiago jakin nahi duzu? Bada, zoaz haien webgunera: <https://www.katxiporreta.es/>

ALBISTEA (Berria 2022/01/07, moldatuta)

Zulaikak, Agirretxek eta Rodriguezek oroigarri bana jaso dute ekitaldian. Modu horretan eskertu nahi izan diete pailazoei azken urteetan egindako lana. Pailazoei, berriz, Korrikak eginiko lana txalotu dute, eta euskararen aldeko mezua bidali: «Munduak txorien kantuak behar ditu, baita herrien hizkuntzak ere».

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ibilbidea omendu dute AEK-k eta Korrikak

Amondok nabarmendu du pailazoak «eragile aktibo bat» izan direla euskararen transmisioaren aldeko lanean.



Astekaria buletina
Irakurri gabe utzi ezin diren artikulak
Jaso nabarmenduriko albisteak, astelehenero, zure helbide elektronikoan.
HARPIDETU!
[Berria.eus/buletinak/](https://berria.eus/buletinak/)
berria

Ekitaldiak, baina, gutxi izan du ohiko omenaldi baten itxuratik, Korrikako Gipuzkoako arduradun Xabier Artolak Gipuzkoako Hitza-ri adierazi dionez, pailazoen «giroko zerbaitetan txertatzea politagoa» iruditu baitzaie: «Pailazoak izanda, haiei keinu bat egiteko aukera polita zela iruditu zitzaigun Gure Zirkurekin elkarlanean omenaldia egitea». Beraz, karpura joandakoek —40 minutuan saldu zituzten sarrera guztiak—, Gure Zirkuko lantaldearen ikuskizunaz gain, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen Kuikui lan berriaren lagin bat ikusteko aukera izan dute.

1. Omenaldiaren aurrekoak

► Osatu esaldiak:

1. AEKren koordinatzaile nagusi Alizia Iribarrenek Pirritx, Porrotx eta Marimototsen etxera deitu , 22. Korrikak omendu egingo esateko.
2. Marimototsek jaso deia, eta pozik kontatu berria lagunei. Porrotx zapatak garbitzen ari Olentzerori jartzeko? Hori ez dakigu...
3. Alizia Iribarrenek Iker Galartzari ere deitu , Korrikak Gure Zirkuan ospatu nahi ekitaldia. Galartzak pozik erantzun baietz, egun horretan karpa libre
4. Poxpolo pailazoak eta AEKren arduradun Alizia Iribarrenek eta Aitziber Balanzategik Gure Zirkuko karpan egin ongietorria Pirritx, Porrotx eta Marimototsi.
5. Bilera egin ondoren, omenaldiko detaileak zehazteko, familia-argazkia atera irribarretsu, denek elkarrekin.

► Lotu esaldiak eta irudiak:



A



B



C



D



E

2. Omenaldia

► Zer ikusi dugu? Azpimarratu:



- a) AEK-ko arduradunak hizketan
- b) Omenduak oroigarriarekin eta hizketan
- c) Trapezistak
- d) Akrobatak
- e) Pailazoak
- f) Malabaristak
- g) Magoa
- h) Musikariak
- i) Jendea txaloka
- j) Jendea aharrausika
- k) Jendea krispetak jaten
- l) Omenduak eta jendea dantzan eta abesten
- m) Animaliak

ENE KANTAK

HAURRENTZAKO MUSIKA ETA DANTZA EUSKARAZ



2011n sortu zuten Ene kantak Nerea Urbizu Ruiz musikariak (22. KORRIKA kantaren sortzaileak), Urko Oskozek eta beste lagun batzuek. Hasieran, disko bat soilik sortu nahi zuten, baina, urtebete pasatuta, beste bat atera zuten, gero beste bat, eta, konturatu gabe, 9 lan kaleratu dituzte.

Abestiekin batera, dantzatzeko pauso eta koreografiak egiten dituzte. Dantzatzea asko gustatzen zaie, eta haien DVDetan haurrak dantzan jartzen dituzte beti! Baina ez haurrak bakarrik, jende ospetsua ere gonbidatzen dute. Bitxia da ospetsuak haurrentzako kantak abesten eta dantzatzen ikustea, baina zeinen ondo pasatzen duten!

Herriz herri ibiltzen dira ikuskizunak egiten, eta arrakasta handia dute. Aukera baduzu, ez ezazu galdu!

Baina hori ez da dena: ETBn haurrentzako saio bat ere egiten dute, astelehenetik ostiralera. Gehiago jakin nahi duzu? Bada, zoaz haien webgunera: <https://enekantak.org/>



ENE KANTAK

3. DENBORALDIA

astelehenetik ostiralera ETB3n

Goizez 8etan Etb3n eta Etb1an

Arratsaldez 20:00etan

SAKONTZEN

► Bete hutsuneak:

Pirritx, Porrotx eta Marimotots (Aiora Zulaika, Joxe Mari Agirretxe eta Mertxe Rodriguez) pailazo-hirukotea da. 1987ko (1) sortu zen, Lasarte-Orian, eta gaur egun Euskal Herriko (2) ezagunenak eta arrakastatsuenak dira.

2017an Korrikari eskaini zioten urteko ikuskizuna, eta orain, (3) omendu egin ditu. Zergatik omendu ditu KORRIKAK Pirritx, Porrotx eta Marimotots? 34 urteko ibilbidea egin dutelako euskal munduan eta, (4). 1987an EKIN zioten, haiei esker askok EKIN (5), eta datozen belaunaldiek ere EKINGo diote. Haiek transmisioa goitik behera (guraso-ume) eta (6) gora (ume-guraso) landu dute; haiek, beren HITZEKIN, euskarari EKIN zioten, eta eutsi egin diote.

Euskara ez (7), euskara ikasteari edota (8) EKIN zioten, eta, (9), euskaraz aritu dira 34 urte hauetan. Haiei (10), guraso asko euskaldundu dira, eta ikuskizun eta kanten (11), bizipoza eta (12) zabaldu dituzte.

AUKERAK:

1	5	9
a) abenduko 24an	a) dugu	a) orduz geroztik
b) abenduaren 24an	b) diogu	b) gaur egun
c) abenduaren 24ean	c) gara	c) azkenaldian
2	6	10
a) pailazoak	a) behean	a) eskerrik asko
b) pailazoek	b) behetik	b) eskerrik
c) pailazorik	c) azpitik	c) esker
3	7	11
a) Korrika	a) zuten	a) esker
b) Korrikak	b) ziotenean	b) bidez
c) Korrikek	c) zutenean	c) bidean
4	8	12
a) euskaraz	a) hobetzen	a) euskara
b) euskaran	b) hobetzeari	b) euskarak
c) euskara	c) hobetzea	c) euskarari

► Aukeratu irakurgaietan azpimarratu dituzun hiruzpalau hitz, eta sortu esaldiak horiek erabilia:

.....

.....

.....

.....

ZEURE ESPERIENTZIA

1. Joaten zara seme-alabekin ikuskizunak ikustera?

- Ez, oraindik¹ oso txikiak dira.
- Ez, ez daukat ohiturarik.
- Egia esanda², gutxitan joaten gara.
- Bueno, batzuetan.
- Bai, askotan.
- Bai, ahal dudan guztietan³.
-

2. Euskarazko ikuskizunak ikusten dituzu?

- Orain arte⁴, ez.
- Bai, gustatzen zait euskara entzutea.
- Bai, baina amorrua ematen dit ez ulertzeak.
- Bueno, hemen ez dago eskaintza handirik euskaraz...
- Nik ez, baina nire bikotekidea euskalduna da, eta berak eramaten ditu umeak euskarazko emanaldietara⁵.
-

3. Zein da umearekin ikusi duzun azken kultura-emanaldia?

- Ez dut gogoratzen.
- Azkenaldian⁶ ez dut ezer ikusi.
- Hauxe ikusi dut/nuen duela gutxi:
.....
-

Gustatu zaizu/zitzaizun?

- Egia esanda, pixka bat aspergarria izan da/zen.
- Bueno, ez da/zen gaizki egon.
- Entretenigarria izan da/zen.
- Umeek primeran pasatu dute/zuten, hori da garrantzitsuena.
- Oso ona izan da/zen, izugarri gustatu zait/zitzaidan.
-
-

4. Ezagutzen dituzu Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun edo kantak? Eta Ene Kantak-enak?

- Egia esanda, orain arte ez.
- Bueno, kanta batzuk bai, telefonoan entzuten ditugu, baina gutxi.
- Bai, haien CD eta DVDak ditugu, eta etxean askotan ikusi ditugu.

5. Ikuskizunen bat ikusi baduzu, azaldu zeure esperientzia: noiz joan zaren/zinen, nora, norekin, zer moduz...

.....



Hiztegitxoa:

¹ Oraindik: todavía; *encore*

² Egia esanda: a decir verdad; *à vrai dire*

³ Ahal dudan guztietan: siempre que puedo; *chaque fois que je peux*

⁴ Orain arte: hasta ahora; *jusqu'à maintenant*

⁵ Emanaldi: actuación; *session, séance*

⁶ Azkenaldian: últimamente; *dernièrement*

TIPI-TAPA, KORRIKA!

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, TIPI-TAPA,
TIPI-TAPA, DATOR KORRIKA!
TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, TIPI-TAPA,
ZAIN GAUDE BIDEAN JARRITA!

SUGE GISA SIGI-SAGAKA, GORA BEHERA TA
JIRA-BIRA.

TUTERATIK ALTZÜRÜKÜRAINO OIONDIK
GARAZIRA!
MENDI, LARRE ETA GALSORO, GOIZ-ALBATIK
ILUNSENTIRA,
EUSKALDUNON AMESLARIETAN TAUPADAK
ENTZUTEN DIRA!

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, TIPI-TAPA,
TIPI-TAPA, DATOR KORRIKA!
TIPI-TAPA, TIPI-TAPA, TIPI-TAPA,
ZAIN GAUDE BIDEAN JARRITA!

HANKEK DAR-DAR EGITEN DUTE, DAR-DAR
EGITEN EGITEN DU BIHOTZAK...
LUR HONEN MINAK SENDATZEN DITU **ZANGOEN**
DANBOR-HOTSAK
EZ, EZ GARA **OTSOEN** MENDE, IZUAK JOTAKO
BILDOTSAK.
AIRERA OZEN HEGALDA DITZAGUN ISILDURIKO
AHOTSAK!

NEGAR, USTEKABEAN, NEGAR EGIN NAHI DUT...
POZEZ TA GRINEZ, INDAR EGINEZ
KORRIKA BADATOR!
BADATOR!

TIPI-TAPA, TIPI-TAPA...

MUSIKA: Xabier Zabala
ABESLARIAK: Pirritx, Porrotx eta Marimotots



► **Kantan nabarmendutako hitzek zer esan nahi dute? Idatzi irudien azpian.**



MAITE ZAITUT

KOLORETAKO AMETSAK ESNA NAGOENEAN
ETA EZIN LOAK HARTU GAUA IRISTEN DENEAN
SALTOKA HASI ETA HEGAN EGITEKO GOGOA
NIRE **BIHOTZA TAUPADA** AIRE-ERTZERA DOA
ELKARREKIN HANKAZ GORA
BURUZ BERA JARTZEAN
TUNELEAN SARTU ETA **IRRINTZIKA** HASTEAN
BITXILOREEKIN PULTSERA EGIN DIZUDANEAN
BEGIETARA BEGIRA, HAUXE NAHI DIZUT ESAN

MAITE ZAITUT
MAITE MAITE ZAITUT
PILA PILA PILA **PATATA-TORTILLA**
MAITE ZAITUT
MAITE MAITE ZAITUT
ILARGIRAINO ETA BUELTA
MAITE ZAITUT

BEGIETAKO DISTIRA
IRRIBARREA AHOAN
EZIN DITUT EZKUTATU ZU IKUSITAKOAN
HANKA ETA ESKUETAN
GORPUTZEAN DARDARA
NIRE BIHOTZA TAUPADA AIRE-ERTZERA DOA
ELKARREKIN **ORTZADARRA** MARGOTU
DUGUNEAN
ISPILUAN NIRE IZENA IDATZI DUZUNEAN
IRRATIA PIZTU ETA **DOINU** HAU ENTZUTEAN
BEGIETARA BEGIRA, HAUXE NAHI DIZUT ESAN

MAITE ZAITUT ...

MAITE ZAITUT
MAITE MAITE ZAITUT
PILA PILA PILA PATATA-TORTILLA
MAITE ZAITUT
MAITE MAITE ZAITUT
ILARGIRAINO ETA BUELTA
MAITE ZAITUT
ILARGIRAINO ETA BUELTA
MAITE ZAITUT

MUSIKA: Xabier Zabala
ABESLARIAK: Pirritx, Porrotx eta Marimotots



► Kantan nabarmendutako hitzek zer esan nahi dute? Idatzi irudien azpian.

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA,
NORA ZOAZ HAIN DESPISTAUTA?
HORI EZ DA ILARGIA,
UTZI PAKEAN **IPURTARGIA!**

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA,
NORA ZOAZ HAIN DESPISTAUTA?
HORI EZ DA **EGUZKIA,**
TA JAN BEHINGOZ **ARRAUTZA!**

KOHETEAREN ORDEZ, NAHI DU **IGOGAILUA,**
HAU DA HAU ASTRONAUTA, HAU DA HAU
KANKAILUA!

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, ... IPURTARGIA!
ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, ... ARRAUTZA!

OGITARTEKO GISA JATEN DU TOMATEA,
HAU DA HAU ASTRONAUTA, HAU DA HAU
ZELEBREA!

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, ... IPURTARGIA!
ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, ... ARRAUTZA!


IPUINAK IKUSTEKO DARABIL IPURTARGIA,
HAU DA HAU ASTRONAUTA, HAU DA HAU
MAITAGARRIA.

ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, ... IPURTARGIA!
ASTONAUTA TRONPETA FLAUTA, ... ARRAUTZA!

LETRA ETA MUSIKA: Nerea Urbizu
ABESLARIA: Brigi Duke



- **Kantan nabarmendutako hitzek zer esan nahi dute? Idatzi irudien azpian.**





ILUNSENTIA



JIRA-BIRA



ORTZADAR



BURUZ BEHERA



SUGEA SIGI-SAGA




POZEZ ETA GRINEZ



IRRINTZIKA



BITXILORE



ZAIN bidean jarrita



ZANGO



PATATA-TORTILA



IRRIBARREA AHOAN



BILDOTSA




OTSOA



BIHOTZ TAUPADA




DOINU




KOHETEA



EGUZKIA



IPUINAK




ARRAUTZA



OGITARTEKO



IPURTARGIA



IGOGAILUA



MAITAGARRIA